

KEPA LARREA



Mina edo libertatea!

Mina edo libertatea!

Larrea, Kepa

ISBN: 978-84-9172-008-9
Saio eta Testigantza, 193
45 argazki eta irudi koloreetan
2017. urtea / 17 x 24 cm / 224 or.

18,50€

1817an, orain dela 200 urte, armada kolonial espainiarraren fusil-desarra trinko batek hil zuen Xabier Mina gaztea Mexikon. 1823an Mexikoko Kongresu Nazionalak gorengo mailako heroi izendatu zuen. Bizitza laburra baina oparoa. Minarena: 1789an Otaon jaioa, euskalduna; Nafarroan Napoleonen kontra borrokatu zen gerrillari buru, preso erori arte 1810ean; Frantziako espetxeetatik irtendakoan, 1814an, Fernando VII.aren kontra altxatu zen Iruña askatu nahian; Frantzia berriro espetxeratu eta ihesi ibili ondoren, Ingalaterrara joan zen 1815ean; han Penintsulako eta Ingalaterrako liberal batzuek (Holand, Russell, Blanco White, Florez Estrada) eta Ameriketako abertzaleek (Scott jeneral angloamerikarra, Fagoaga anaiak, Servando Mier) lagunduta, Mexikorantzko espedizio baten buru bilakatu zen, independentziaren aldeko insurjenteen matxinada sustatzearen; 1816an Ingalaterratik Ameriketara abiatuta, Virginian, Haitin eta Galvestonen 300 ofizialeko gudaroste bat atondu zuen Bolivar askatzailearen, Aury komodoroaren eta Petion Haitiko presidentearen laguntzarekin; azkenik, *División Auxiliar de la República Mexicana* gudarostearen jeneral izendaturik, Veracruzetik hurbileko hondartzetan lehortatu zen, eta Mexikoren errepublikaren eta independentziaren alde gerra egin zien Espainiako errealistei zortzi hilabetez, 1817an 28 urte zituela, fusilatu zuten arte.

«Vuestros opresores calculan que para restablecer su bárbara dominación sobre vosotros y sobre vuestros hijos, es preciso esclavizar el todo... Por la causa de la libertad e independencia he empuñado las armas hasta ahora; solo en su defensa las tomaré de aquí en adelante [...]. La patria no está circunscripta al lugar en el que hemos nacido, sino más propiamente, al que pone a cubierto nuestros derechos personales». «Salud y libertad», idazten zuen Xabierrek bere sinaduraren ondoan.



KEPA LARREA MUXIKA (Basauri, Lapatza, 1956)



Euskal Filologian lizentziatua eta Geografia eta Historian doktorea. Irakaskuntzan hasi aurretik bestelako lanak egin ditu, hala nola delinearzailea, administraria eta itzultzailea. Arrigorriagako Udala Euskaltegian ari izan ondoren, egun EHUko irakaslea da Hizkuntza eta Literaturaren Didaktikaren Sailean.

Tantak, *Hizpide*, *Revista de Psicodidáctica*, *Gerónimo de Uztariz* eta *Euskalingua* aldizkarietan argitaratu ditu bere lanak. Aipagarrien artean: «Ikasleen hizkuntza erroreak eta hutsegiteak», «Bigarren hizkuntzaren eskurapenerako hainbat oinarri eta proposamen metodologiko», «Euskalduntzearen umoreak».

Horrez gain, DBHrako eskola liburuak (*Euskal Hizkuntza eta Literatura*, Erein) eta zenbait monografia kaleratu ditu: *Nola aterata EGA euskara jakin gabe* (Likiniano, 2003), Adurren irudiez hornitua, *Euskalduntzearen atakan* (Erein, 2005), *Itzalak haturik* (Pamiela, 2011. Juan Zelaia Saria-2010), *Mina edo Libertatea!* (Pamiela, 2017) eta *Biba Mina! Kantuak eta kontuak* (Pamiela, 2017).



www.pamiela.com • 948 326 535 • soltxate@pamiela.com